



Zarata ona

DABI PIEDRA
PEDRO ALONSO (METAL JOURNAL)

Hiru hamarkada eta ehunka kontzerturen ondoren, Su Ta Gar taldeak betiko indarrari eusten diola ikusi ahal izan dugu 30. urteurreneko biran. Bilboko Aste Nagusian jo zuen Eibarko laukoteak bira horretako azken kontzertua, Abandoibarrako agertokian. Musika eta oroitzapenak uztartu zituen emanaldiak, izan ere, pantaila handi batean, argazki zaharrak eta Su Ta Garren bideoklip ezagunenak proiektatu zituzten.

Ordu-orduan agertu ziren Su Ta Garreko kideak ohol-tza gainera, eta denborarik galdu gabe ekin zioten kontzertuari, publikoa saltoka jarri zuten doinuekin. Batez ere hasieran, euren ibilbideko pieza mitikoak jo zituzten, etenik gabe, su eta gar, izenari men eginenez. Une batez, doinu lasaigoetara jo zuten, argazki zaharrak proiektatzen

hasi zirenean, baina laster segitu zuten *kaña* ematen.

Garai bateko jai eta gaztetxeetako beterano asko zegoen publikoan, euren gaztaroko soinu banda izan zitekeenaz gozatzen. Baina Su Ta Gar sortu zenean jaio gabe zeuden gaztetxoak ere agertu ziren Abandoibarran. Kontzertuak goia jo zuen *Jo ta ke* eta *Libre* kantuak elkarren atzetik jo zituztenean. Aitor Gorosabelek mikrofonoa jendeari zuzendu zion, eta lehenengo ilaretakoek gustura kantatu zuten. Egundoko zarata zen hura, zarata ona.

Laukoteak atseden labur bat egin zuen, pantailan *Arbasoen mendekua* bideoklipa jarri zuten bitartean. Kontzertuaren bigarren zatia heterogeneoa izan zen: pieza instrumentalak, baladaren bat (adibidez, *Itxaropena*)... baina dezibelioak topera, noski. Bertsio batzuk jotzeko tartea ere

SU TA GAR-EN KONTZERTUA

NOIZ: abuztuaren 17an.
NON: Abandoibarra, Bilbo.

hartu zuten Su Ta Garrekoek, heavy-metalera "bultzatu" zituen abestienak, Gorosabelek azaldu zuenez.

Askorako ematen du Su Ta Garren 30 urteko ibilbide oparoak, eta zukua atera zioten, hasieratik amaierara, lau musikariek. Abesti mitikoak jo zituzten, jendearen gozamenerako, baina kontzertua ez zen omenaldi edo nostalgia soilean gelditu. Oroitzapenetatik harago, bertaratutako publikoa aseta uzteko moduko errezitaldia izan zen eibartarrena, bi orduko emanaldian. Bazirudien nekerik ere ez zutela sentitzen Su Ta Garrekoek. Gainera, amaieran *Jo ta ke* bideoklipa jarri zuten pantailan.

Betiko indarra erakutsi zuten ohol-tza gaineoek, eta ohol-tza azpiko zaleek izerditan eta ahotsa urratuta bukatu zuten. Heavy-metalaren oihartzunak Bilbo hartu zuen gau hartan. ●